NAFARROA OINEZ 2021

OINEZ BASOA

LIZARRA IKASTOLA

ZER DA OINEZ BASOA?

Oinez Basoa tokian tokiko proiektua da, Nafarroa Oinez festaren antolaketaz arduratzen den ikastolari laguntzera heldu dena. Baina, aldi berean, dimentsio unibertsal eta parte hartzailea du, milaka pertsona eta entitate bere baitan bildu nahi dituena. Horrela, ingurumenaren eta euskararen berreskurapenean lagunduko dugulakoan gaude. Oinez Basoa Nafarroa Oinez Fundazioak (NOF) sustatutako proiektua da.

Proiektua 2008an sortu zen, ikastolen jaiak naturan eragiten duen ekologia-inpaktuarekin jabetutakoan, Nafarroa Oinezek baliabide naturalak kontsumitzea, hondakinak sortzea eta berotegi-efektuko gasak isurtzea eragiten baitu. Festaren aztarna ekologikoa gutxitzeko asmoz, Oinez Basoa ekimena abian jartzea erabaki zen, hala ustez osoz, nola konpromisoz. Festa hartzen duen tokian ingurumenaren kalitatea hobetzeko testigantza egonkorra da Oinez Basoa eta jasangarritasunari lotutako ekimena, zeinak, jai jasangarria eredurantz aurre egin nahi baituen.

Ekimena abian jarri zenetik Arbizun, Tafallan, Tuteran, Zangozan, Baztanen, Andosilla-Sartagudan, Lesakan, Altsasun, Arguedasen eta Barindano-Antzin-Lizarran 10 baso sortu dira 14 urteetan zehar egin dugun ibilbidearen baitan, 50.000 zuhaitzetik gora landatzea lortu da Nafarroa guztian barna, Nafarroa Oinezek uzten duen elkartasun aztarna eraginez. Sortutako basoak, urtetik urtera, garatzen doaz, aberasten eta gure hezkuntza jarduerari lotutako baliabide pedagogiko bilakatzen. Horren adibide garbia Arbizuko basoan sortutako baltsa, non hegazti migratzaileek eta igelek bizitoki egin duten. Tafallan, NUPren laguntzaz, ikerketa-lan bat gauzatu dute, airearen karbonoaren bahiketa eta Oinez Basoak naturan sortzen dituen onurak aztertzeko.

2017-2018 ikasturtean hitzarmen bat izenpetu zen Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin, Oinez Basoen sarearen garapen pedagogikoa dela-eta. Hitzarmen horretan hainbat ekimen biltzen dira. Alde batetik, ingurumenaren alorreko parametroen eta proposamen parte-hartzaileen monitorizazioa, ingurumen hezkuntza lantzeko Tafallako Oinez Basoan. Iñigo Virto -ingeniari doktore agronomoa- eta Bosco Imbert -biologiako doktorea- irakasleek parte hartuko dute bertan.

Beste alde batetik, Oinez Basoen sareaz baliatuko den zientzia proiektu herritar baten garapena. Ekimen horren bitartez, ikasleek zein familiek parte hartu ahal izango dute tresna horren garapenean, eta, horrela, espezieak identifikatu eta konparatuko dira, izen arruntak sartuko dira hainbat hizkuntzatan eta erreferentziazko oinarri bat sortuko da, konparazioak eta jarraipenak egin ahal izateko, bai sare barruan bai plataformako beste ekimen batzuetan. Biologiako doktore den Javier Peralta irakasleak jardungo du laguntzen.



OINEZ BASOA 2021

ESTELLERRIA

2020 urteak ekarri zigun pandemiaren ondorioz Lizarran ezin izan genuen tokiko egitasmoa gauzatu, eta hortaz, 2021ean eutsi diogu berriro ere erronkari.
Lizarra Ikastola Estellerriko eskualdearen ikastola da, eta hortaz, herri askok osatzen dute. Hala izanik, Nafarroa Oinezi lotutako ekimenak Lizarraldera zabaltzea erabaki dugu, ondoko herriekin elkarlana sustatuz, eskualdeko sarea ehunduz, indarrak eta asmoak batuz eta naturari dagokionez zerbaitek batzen bagaitu, ibaiak dira korridore ekologikoak diren heinean lurraldeak batzen baitituzte. Ega ibaiak Lizarra zeharkatzen du iparraldetik hegoaldera, Urederra ibaiaren ur-emaria jaso ostean, aldi berean, Urederrak Uiarra ibaiaren emaria bereganatzen duelarik.
Estellerrian Natura 2.000 sareari lotuta Ega-Urederra ZEC deiturikoa topa dezakegu, Kontserbazio Bereziko Eremua alegia. Espazio Natural hau abiapuntutzat hartuta, beronen Gestio Planak jasotzen dituen helburuak garatzen lagunduko duten esku hartzeak planteatu ditugu aurtengo Oinez Basoari dagokionez, bertako landaretzaren berreskurapenaren aldeko landaketak hain zuzen ere.
Azken hamarkadatan bi ibai hauen ertzetan, beste ibai askotan gertatu bezala, makal-klonen landaketa produktiboak egin dira, bertako landaretzari ibai ertzetako zerrenda estuak utziz eta biodibertsitatea pobretuz. Ezaugarri hauek dituzten bi eremu landuko ditu aurtengo Nafarroa Oinezek, egoerari buelta emateko asmoz.

Batetik Barindano herrian, bertako Kontzejuaren eskutik, azken urteotan makal-klon produktiboen landaketa izan duen partzela batean bertako espezieak hartuko dituen landaketa egingo dugu Uiarra-Urederra ibaien elkartze puntuan. Makal produktiboen ordez bertako makalak, haltzak, hurritzak, basaranak, elorriak eta beste landare batzuk landatuko ditugu hektarea pasatxo duen partzela batean, aurretik makal-klon produktiboen ipurdiak atera behar direlarik. Ekologia eta biodibertsitatearen aldetik ekintza esanguratsua izanen da, ZEC-aren gestio planak ezartzen dituen helburuak lortzen lagunduko baitu.



Bestalde, Antzin herrian, bertako Udalaren eskutik, berriki saldu eta moztuko da makal-klon landaketa bat dugu. Eremuak hartuko duen landaketa berriari dagokionez, zati bat erreserbatuko da hezkuntzari begira. Zati honetan ibai ertzetako landaretzaren garapenean parte hartzen duten landare serial guztien ordezkariak landatuko dira. 1995. urtean Loidi eta Báscones biologoek idatzitako lanean ageri denez, "Geoserie de ríos y arroyos navarro-alavesa y castellano-cantábrica [G3] Viburno-Ulmo minoris S.; Humulo-Alno glutinosae S.; Salico lambertiano-angustifoliae S." izeneko ekosistema da zonalde honetako landaretza-serialaren eredu, eta bertan definitzen dira etapa ezberdinetan parte hartzen duten landareak. Gauzak honela, landare guzti hauek baliatuz landaketa eginen da Antzinen eskualde osoko haurrek naturaren ikasketa eta interpretaziorako gune bat izan dezaten.

Azkenik, eskualdearen buru den Lizarrako hirian, Oinez Basoa 2021 ekimena osatuko duen ekintza xume bat garatuko da. Los Llanos parkea hiriaren birika berdea da, hiriaren harribitxi naturala. Saguzarrak dira naturak eskaintzen digun beste harribitxi bat eta ugaztun hauek hartuko ditu oinarri azken esku hartze honek. Horrenbeste mehatxu pairatzen dituzten animalia hauen kontserbazioa bermatzeko, Los Llanos parkean beraientzat diseinatutako habi bereziak jarriko ditugu kokapena ezberdinetan. Halaber, haurren hezkuntzari lotuta baliatuko den ekintza izango da, animalia hauen biologia eta ohituren inguruan ikasteko aukera izango baitute.

,

BARINDANO

ANTZIN

LIZARRA

HISTORIKOA

- 2009an Arbizun, mendebaldeko basoa.
- 2011n Tafallan, baso mediterraneoa.
- 2013an Tuteran, ibaiertzeko basoa.
- 2014an Zangozan, zabortegi zaharraren berreskuratzea, baso jangarria eta hegaztien basoa.
- 2015ean Baztanen, babestutako bi zuhaitz-espezien kontserbazioa eta Minditze.
- 2016an Sartaguda eta Andosillan, zuhaitz etorbidea eta pinudia.
- 2017an Lesakan, 2015ean izandako sutean erretako lurren berreskuratzea.
- 2018an Altsasun, hostozabal zuhaitzen landaketa eta saguzarrentzako habia-kutxen kokatzea.
- 2019an Arguedasen, abelbide batean pinudien biodibertsitatearen sustapena eta hegazti eta saguzarrentzat habia-kutxen kokatzea.

OINEZ BASOA HITZ GUTXITAN

- *50.000 zuhaitzetik gora 10 basotan.*
- *57 hektareatik gora basoberrituta.*
- *Hezteko baso bat. Baliabide pedagogikoa ingurumenarekiko sentiberatasuna eta errespetua lantzeko.*

OINEZ BASOA ERREALITATE BAT DA

ETA HONAKO ALDERDIAK LAGUNTZEN DITU

- *Gure ingurunearekin, ondare kultural eta naturalarekin eta gure hizkuntzarekin, euskararekin alegia, bai norberak bai taldeak konpromisoa hartzearen premiari buruzko kontzientzia sortzea.*
- *Neska-mutilen, gazteen eta adinakoen inplikazioa eta parte hartzea izango duten ekimen solidario komunitarioak egi bihurtu.*
- *Etengabe hazten ari den lurralde bakoitzari eta bertan jarduten duen jendeari egokitzen zaion jatorrizko proiektuan ideia eta proiektu berriak eranstea.*
- *Taldearen, erakunde publiko eta pribatuen, enpresen eta elkarteen inplikazioa proiektu komun batean.*

NOLA LAGUNDU?

ZUHAITZAK BABESTUZ

Zuhaitz bakoitzeko 10 euroko ekarpena eginez gero, Oinez Basoarekin dituzun konpromisoen lekukotasuna utziko duzu eta guztiona izango den basoa sortzen lagunduko duzu.

PROIEKTUA LAGUNDUZ

Bai zure izenean, bai enpresaren edo taldearen izenean, zure ekarpenaren bitartez 100 zuhaitz baino gehiago babesten baduzu, modu nabarmenean aipatuko dugu proiektua zabaltzeko erabiltzen ditugun euskarrietan.

Oinez Basoaren alde egiten baduzu, gure mendiak eta ekosistema babesteaz eta aberasteaz gain, ...

euskara zaintzen eta indartzen lagunduko duzu!





Gizarte arduratsu batek jaso duen kultura-ondareren bizi irautea eta transmisioa ziurtatzen du, eta etorkizuneko belaunaldien baliabide eta aukerak arriskuan jarri gabe, bere beharrak asetzeko gaitasuna du.

www.oinezbasoa.eus / 672 314 557 / basoa@nafarroaoinez.eus